

Unibertsitateko ikasleen ikaskuntzara bideratutako ebaluazioa¹

J.F. Lukas Mujika
Karlos Santiago Etxeberria
Hilario Murua Cartón

Filosofia eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
Euskal Herriko Unibertsitatea

1.-SARRERA

Ebaluazioa hezkuntza eremuko jarduera garrantzitsuenetakoa da. Berari esker ikasleen ikaskuntzen lorpen maila zehaztu daiteke eta halaber ikas-irakaskuntza prozesua bera hobetu. Goi-mailako irakaskuntzan ohikoa izan da ebaluazioaren funtzio sumatiboa erabiltzea. Hau da, irakaskuntza prozesuaren amaieran emaitzak zehaztea eta ikasleen ikaskuntzak neurtzea. Hala ere, azken urte hauetan Goi-mailako irakaskuntzan, ebaluazioaren ikuspegi berriak ere sortu dira. Hauek, ohikoak izan diren ebaluazioaren ikusmolde eta jarduerentzat aukera berriak proposatu dituzte. Ebaluazioa ikaskuntza prozesuan integratua egotea eta era berean ikuspegi formatiboak izan behar duen garapena azpimarratzen dira (Knight, 1995; Bryan eta Clegg, 2006; Irons, 2008; Pérez eta besteak, 2008).

Ebaluazioan eman beharreko aldaketak Europako Goi-Mailako Hezkuntza Esparruak eskatzen duen baldintza bat da. Esparru honek hiritarrak eta profesionalak prestatzeko erronka suposatzen du, etengabe aldatzen ari diren giza eta lan-eszenatoki desberdinetan integratzeko eta mugitzeko. Ikasleen autonomia, malgutasuna eta egoera berrietara egokitzeko gaitasuna lortzeko asmoz, orain arte erabilitako irakaskuntzarako ereduak ez dira baliagarriak. Ondorioz, eredu berriak behar dira eta era berean ebaluazio modu berriak ere.

Ebaluazioaren bitartez beraz, azken emaitza baino, ikasleen garapenaren ebaluazio jarraitua egin behar da kontutuan harturik bai unibertsitatean bertan dagoelarik egiten dituen jarduerak eta bai eskolaz kanpo egiten dituenak ere. Ikasleen ikaskuntzaren hobekuntza bermatzeko atzeraelikadura indartu behar da. Era honetan, ebaluaziorako tresna anitzak behar dira, teknika eta prozedura desberdinak erabiliz ebaluazio sistema berean. Sistema honetan, ohiko azterketak indarra galduko du. Honekin batera ebaluazioaren erantzukizuna ere berriro banatu behar da, ikasleek ere parte hartu behar baitute lan honetan.

Ikaskuntzara Bideratutako Ebaluazioa (Learning-Oriented Assessment) izenez ezagutzen den eredu berritzailea, aipatu ditugun ezaugarri horien harian sortu da (Brodie eta Irving, 2007; Carless, Joughin eta Wok, 2006; Carless et al., 2007; Gibbs eta Simpson, 2004; Wilson eta Scalise, 2006).

¹ Hemen aurkeztzen den lana, honako ikerketaren atal bat besterik ez da: Gil Flores, J. eta besteak (2010). Pautas para desarrollar una evaluación orientada al aprendizaje elaboradas a partir de las percepciones del alumnado sobre la evaluación. Programa de estudios y análisis para la mejora de la calidad de la Enseñanza Superior y de la actividad del profesorado universitario (convocatoria 2009). Proyecto EA 2009-0038.

Ikaskuntzara bideratutako ebaluazioak, funtzio formatiboak duen garrantzia azpimarratzen du. Zentzu honetan, Padillak eta Gilek (2008), zenbait idazleen lanak arakatuz, honako hiru baldintza hauek zehazten dituzte Goi-mailako irakaskuntzan horrelako ebaluazioa garatzeko:

1. Ebaluaziorako jarduerak ikaskuntzarako ere jarduerak dira. Horretarako:
 - a. Nahikoa denbora eta esfortzua eskatu behar dute.
 - b. Ikaslearen lana, gai eta aste desberdinetan banatu behar da.
 - c. Ikaslearentzat ikaskuntza emankorrak ekarriko dituzten jarduerak izan behar dira.
2. Feedback edo atzeraelikadura eskaini behar zaie ikasleei. Era honetan, ikasleek jaso duten informazioa aintzat harturik aurrera joko dute beraien lanean eta ikaskuntzan aurreratuz. Zenbait autorek, feedback hitza erabili beharrean feedforward (aurreraelikadura) kontzeptua erabiltzea proposatzen dute. Atzeraelikadura hau eraginkorra izan dadin eta ikasleen ikaskuntzaren hobekuntza lortzeko beharrezkoa da:
 - a. Nahikoa atzeraelikadura eta beharrezkoak diren xehetasunekin eskaintzea.
 - b. Erabilgarria izan dadin azkar eskaintzea.
 - c. Kalifikazioan baino ikaskuntzan arreta jartzea.
 - d. Jardueraren helburura eta ebaluazio irizpideetara lotzea.
 - e. Ikasleentzako ulergarria izatea.
 - f. Ikasleak jasotako atzeraelikadura horren arabera jokatzeko beraien lana eta ikaskuntza hobetzeko.
3. Ikasleek bere lanaren ebaluazioan parte hartu behar dute. Hau oso gaitasun garrantzitsua da bere etorkizuneko lanbidean etengabeko ikaskuntza autonomia lortzeko. Horretarako, lan baten ebaluatze eta hobetzeko, ikasleek ezagutu beharko dituzte zeintzuk diren estandarrak eta irizpideak balore epaiak egiteko.

Atzeraelikadura, ikasleen partaidetzarekin lotzen denean, ebaluazioa tresna erabilgarria bihurtzen da ezagutzeko ikasitakoa zer den eta jabetzeko zein izan den jarraitutako prozesua ikaskuntza horiek lortzeko (Bordas eta Cabrera, 2001). Ikasleak bere prestakuntzaren hobekuntzan parte hartzeko, jabetze hori nahitaezkoa da.

Egoera hau izanik, gure asmoa, gaur egun UPV/EHUn ebaluatze erabiltzen diren estrategiak zeintzuk diren aztertzea izan da. Horretarako ikasleen ikusmoldeak ebaluazioarekiko eta unibertsitatean bere ikasketen ebaluazioan izan duten eskarmentuan oinarritu gara.

2.-METODOLOGIA

Ondorengo lerroetan azterlanaren nondik norakoak aurkeztuko ditugu.


2.1.-Helburuak

Azterlan honetan bi helburu nagusi proposatu dira:

- I. Ikasleek, unibertsitatean ikas-irakaskuntza prozesuak ebaluatzeko erabiltzen diren praktikak nola ulertzen dituzten identifikatu.
- II. Unibertsitateko ikasleek ikaskuntzaren ebaluazioari buruz dituzten ikusmoldeak eta jarrerak deskribatu.

2.2.-Diseinua

Helburu horiek gauzatzeko inkesta metodoa erabili da. Galdera-sorta prestatu zen eta ikasleei aplikatu zitzaien. Bertan, ikasten ari den ikasgai desberdinetan ebaluazioa nola ikusten eta ulertzen duen eta ebaluazioari buruz dituen ikusmoldeak eta jarrerai buruzko galderak zeuden. Ondoko irudi honetan ikus daiteke jarraitutako prozesua:



1. Irudia: Azterketaren diseinua.

Galdera-sortaren erabilerak, ohikoak diren aldiak gauzatzea ekarri zuen: laginaren hautaketa, galdera-sorten aplikazioa eta jasotako erantzunen analisisa. Galdera-sortaren azken bertsioa izan aurretik, 1. bertsio bat prestatu zen. Berau, alde batetik unibertsitateko zenbait irakasleei eman zitzaien baloratzeko eta bestetik, aplikazio pilotua egin zen ikasleen lagin batekin.

2.3.-Partehartzaileak

Aztertutako populazioa 2009-2010 ikasturtean UPV/EHUko 3. mailan edo goragokoetan matrikulatutako ikasleek osatu dute. Kontutan izanik zein zen azterlanaren helburua, hau da, ikasleek ebaluazioari buruz duten ikuspegia, derrigorrezkoa izan zen parte hartu behar zuten subjektuek unibertsitateko ikaskuntzen ebaluazioan eskarmentua izatea. Horregatik, 1. eta 2. mailetako ikasleak baztertu egin ziren, nahikoa esperientzia ez zutelako.

Laginketa gauzatzeko, eredu ez probabilistikoa erabili da. Kuotakako laginketa egin zen unibertsitatean dauden bost ezagutza arloetako ikasleak egongo zirela ziurtatuz. Subjektuen aukeraketa egiteko, ikasgela bakoitzak osatzen duen konglomeratua hartu zen. Era horretan, galdera-sorten aplikazio kolektiboa ahalbidetu zen.

Beraz, ezagutza arlo guztiak ordezkatuak egoteaz gain ez zen beste inongo irizpiderik jarraitu subjektuak aukeratzerakoan. Ondorioz, ikastaldeetara iristeko erraztasunak baldintzatu zuen laginaren aukeraketa.

Arloa	Kopurua	Ehunekoa
Arte eta Giza Zientziak	90	21,8
Zientziak	30	7,3
Osasun Zientziak	79	19,2
Gizarte eta Lege Zientziak	124	30,1
Ingeniaritza eta Teknologia	89	21,6
DENERA	412	100

1. Taula: Partehartzaileen banaketa arloka.

Aurreko taulan ikus daitekeen moduan, denera 412 ikaslek parte hartu zuten. Horietatik, %66 emakumezkoak izan ziren eta %34 gizonezkoak berriz. Bestalde, ikasle kopuruen eta ikastalde kopuruen arabera, ezagutza arloen banaketa ez zen hasieran espero zen bezain proportzionala. Dena dela, ondoko taulan ikus daitekeen moduan, lagineko subjektuek UPV/EHUko populazioa ordezkatzan dutela esan genezake. Alde batetik, ikasle kopurua handia delako, bestetik, bost ezagutza arloetako subjektuak daudelako. Eta azkenik, ondoko taulan ikus daitekeen moduan, ikasle hauek titulazio desberdinetakoak direlako:

Titulazioa	Kopurua	Ehunekoa
Biologian lizentziatua	17	4,1
Filosofian lizentziatua	41	10,0
Antropologian lizentziatua	49	11,9
Erizaintzan diplomaturatua	79	19,2
Kimikan lizentziatua	13	3,2
Psikopedagogian lizentziatua	36	8,7
Zuzenbidean lizentziatua	45	10,9
Pedagogian lizentziatua	43	10,4
Ingeniaritza teknikoa	89	21,6
DENERA	412	100,0

2. Taula: Partehartzaileen banaketa titulazioka.

2.4.-Galdera-sorta

Erabili den galdera-sorta 55 itemez osatua zegoen. Item hauek hiru multzotan banatzen ziren: Ikusmoldeak, jarrerak eta esperientziak. Multzo bakoitzak dimentsio batzuk zituen. Denera, 1. koadroan ikusi daitekeen bezala, 9 dimentsio zirelarik.

Galdera-sortaren lehen bertsioa Unibertsitateko Hezkuntza Zientzietako 26 irakaslek baloratu zuten. Bertan, item bakoitza, ondoko bi irizpide hauen arabera, 0tik 5era puntuatzeko eskatu zitzairen:

- ❖ *Egokitasuna*: itemaren edukia eta erabili behar zen dimentsioaren artean zegoen elkarrekikotasuna.
- ❖ *Argitasuna*: itemaren erredakzioaren argitasuna eta zehaztasuna.

Kontutan izanik aztertzaile hauek emandako puntuazioak eta egindako iradokizunak, beharrezkoak ziren moldaketak egin eta galdera-sortaren azken bertsioa eraiki zen: “*Unibertsitateko ikasleentzat galdera-sorta ikaskuntzaren ebaluazioaren inguruan*”. Ondoko taulan ikus daiteke nola gelditu zen egituratua galdera-sorta:

Multzoa	Dimentsioa	Dimentsioaren deskripzioa	Item kopurua
I. Ikusmoldeak	Ebaluazioaren kontzeptua	Ikaskuntzaren ebaluazioari buruz unibertsitateko ikasleek ulertzen dutena	4
	Ebaluazioaren asmoa	Ikasleen ustez, zertarako egiten den ikaskuntzaren ebaluazioa	8
II. Jarrerak	Jarrerak	Ebaluazioaren aurrean ikasleek agertzen duten iritzia eta hartzen duten jarrera	12
III. Esperientziak	Ebaluazioaren objektua	Ikasleek bizi izandako eskarmentuaren arabera, unibertsitatean ebaluatzen diren ikaskuntza motak.	4
	Ebaluatzailea/ikaslearen partehartzea	Nork gauzatzen den ikaskuntzen ebaluazioa eta zein da ikaslearen eginkizuna	5
	Ebaluazioaren uneak	Noiz egiten den ikaskuntzaren ebaluazioa	3
	Teknikak	Ikaskuntzaren ebaluazioan, informazioa biltzeko erabiltzen diren teknika eta prozedura desberdinak.	7
	Ebaluazio eta kalifikazio irizpideak	Ikaslearen ikaskuntzaren ebaluazioa egiteko nola zehazten diren irizpideak eta kalifikazioak	6
	Atzeraelikadura	Ebaluazioaren ondorioz ikasleari ematen zaion informazioa eta emateko modua. Ikaskuntzaren hobekuntzarako izan ditzakeen ondorioak	6
DENERA			55

1. Koadroa: Itemen banaketa multzoa eta dimentsioka.

Galdera-sortako itemak, Likert modukoak ziren. Beraz, ikasleari enuntziatu aurkezten zitzaion eta berak 1etik 5erako eskalan bere adostasun edo desadostasun maila adierazi behar zuen.

Galdera-sortaren aplikazioa 2009ko azarotik abendura bitartean egin zen. Data hori aukeratu zen ohiko ebaluaziotik urruti zegoelako eta beraz ahalik eta kutsadurarik txikiena izateko.

2.5.-Datu analisia

Galdera-sorta honen kasuan gertatzen den bezala, itemen erantzunak oso egituratuak daudenean, analisia egiteko estatistika erabiltzen da. Batez ere, teknika deskriptiboak erabili dira Galdera-sortako item bakoitzaren erantzunentzat maiztasunen banaketa kalkulatu da. Era berean, item bakoitzarentzat batez bestekoa eta desbideratze tipikoak kalkulatu dira.

Horrekin batera, galdera-sortaren item kopurua dimentsio gutxi batzuetan biltzeko asmoz, aldagai anitzeko teknikak erabili dira, analisi faktoriala hain zuzen ere. Lortutako faktoreen arabera, dimentsioak identifikatzea eta subjektuek, horietako bakoitza osatzen duten item multzoaren batez besteko puntuazioak lortzea ahalbidetu digu.

3.-EMAITZAK

3.1.-Ebaluazioaren kontzeptua

1. Dimentsioa: EBALUAZIOAREN KONTZEPTUA							
Itema	Erabat desados		3	Erabat ados		Bat. bes.	Des. Tip.
	1	2		4	5		
1- Ikaskuntza ebaluatzea, ikaskuntza horri buruzko balorazioa egitea da	2,2	9,3	42,3	32,8	13,4	3,46	0,91
2- Ikaskuntza ebaluatzea, lortu nahi ziren helburuak edo konpetentziak zein puntutaraino lortu diren frogatzea	2,4	9,5	25,1	42,7	20,2	3,69	0,98
3- Ebaluazioa, ikasleak lortutako ikaskuntzaren deskribapen bat da, eta lorpen nahiz hutsuneak erakusten ditu	5,8	13,9	30,7	39,4	10,2	3,34	1,03
4- Ebaluazioa, irakasleak ikaslea kontrolatzeko modu bat da	7,1	16,1	28	31,9	17	3,36	1,15

3. Taula: Ebaluazio kontzeptuari buruzko emaitzak.

3.2.-Ebaluazioaren asmoa

2. Dimentsioa: EBALUAZIOAREN ASMOA							
Itema	Erabat desados		3	Erabat ados		Bat. bes.	Des. Tip.
	1	2		4	5		
5- Ebaluazioak, ikasleek ikasgai bat ikasi ondoren, benetan zer ikasi duten jakitea ahalbidetzen dio irakasleari	8,1	19,6	30,1	31,1	11,2	3,18	1,12
6- Ebaluazioak ikasle batek eduki bat gainditu duen ala ez erabakitzeke balio du	7,8	17,5	29	29,2	16,5	3,29	1,17
7- Ebaluazioari esker, ikasleak bere ikaskuntza-mailaren kontzientzia hartzen du	11,7	24,1	33,9	24,9	5,4	2,88	1,08
8- Ebaluazioak ikaslearen ikaskuntza hobetzen laguntzen du	9,3	16,4	38,5	28,7	7,1	3,08	1,05
9- Ikasleen ikaskuntza ebaluatzeak, irakasleriak bere eskola-saioak hobetzeko balio dezake	5,1	9	34,2	35,9	15,6	3,48	1,03
10- Ebaluazioaren helburua ikasleen espediente akademikoan agertuko diren kalifikazioak ezartzea da	12	16,2	22,6	28,5	20,6	3,29	1,29
11- Ebaluazioak ikaslea motibatu egiten du ikasteko	19	24,9	33,2	18,8	4,1	2,64	1,11
12- Ikasgai bat aurrera eramateko orduan, ebaluatzeke erak baldintzatu egiten du ikasleak denbora eta esfortzua antolatzeke aukeratzen duen modua	2,2	7,1	21,7	33,8	35,3	3,93	1,02

4. Taula: Ebaluazioaren asmoai buruzko emaitzak.

3.3.-Jarrerak

3. Dimentsioa: JARRERAK							
Itena	Erabat desados		3	Erabat ados		Bat. bes.	Des. Tip.
	1	2		4	5		
13- Unibertsitatean kendu beharko litzateke ebaluazioa	14,9	26,2	35	13,7	10,3	2,78	1,17
14- Ebaluazioa baliagarria da irakasleriarentzat	3,4	5,9	35,9	40,8	13,9	3,56	0,92
15- Ebaluazioa baliagarria da niretzat	9,2	19	39,4	26	6,3	3,01	1,03
16- Ebaluazioak ikasteko aukera ematen du	12,9	16,3	36,3	31	3,4	2,96	1,06
17- Ebaluazioak urduritasuna eta antsietatea sortzen dizkit	3,9	7,8	14,1	29,5	44,6	4,03	1,12
18- Ebaluazioa kaltegarria izan daiteke niretzat	3,9	16,6	25,9	32,3	21,3	3,50	1,12
19- Ebaluatzeko eginkizunek eskatzen duten denbora gehiegizkoa da	2,2	7,6	42	32	16,3	3,53	0,93
20- Ebaluatzeko eginkizunak zailak iruditzen zaizkit	2,5	12,3	50,5	27,8	6,9	3,24	0,85
21- Unibertsitateko ikaskuntzaren ebaluazioa modu egokian egiten da	18,1	30,6	41,6	7,8	6,9	2,45	0,94
22- Ebaluazioak benetan ikasi dudana islatzen du	31,7	40	21,2	6,1	1	2,05	0,93
23- Ikaskuntzaren ebaluazioak modu ekitatiboan tratatzen ditu ikasle guztiak	20,8	22,7	34	17,1	5,4	2,64	1,15
24- Ikasleen ikaskuntzaren ebaluazioa prozesu gardena da	15,9	30,9	40,2	11,3	1,7	2,52	0,95

5. Taula: Jarrerai buruzko emaitzak.

3.4.-Ebaluazioaren objektua

4. Dimentsioa: EBALUAZIOAREN OBJEKTUA							
Itena	Erabat desados		3	Erabat ados		Bat. bes.	Des. Tip.
	1	2		4	5		
25- Ebaluazioa, batik bat, ikasgaietako ezagutza teorikoetan zentratzen da	2,4	8,3	30,1	39,6	19,6	3,66	0,97
26- Ebaluatzean kontuan hartzen da ni egiteko gai naizena: trebetasunak, aplikatzeko gai naizen teknikak, erabilitako tresnak,...	16,6	30,7	32,2	18,8	1,7	2,58	1,03
27- Ikaskuntzaren ebaluazioaren barruan sartzen dira nire jarrerak eta balioak	23,9	31,7	32	10,2	2,2	2,35	1,02
28- Ebaluazioa egitean, kontuan hartzen da nire etorkizun profesionalean aurkituko ditudan egoera antzerakoetan ezagutzak eta trebetasunak aplikatzeko daukadan gaitasuna	22,2	32,7	30,5	13,9	0,7	2,38	1

6. Taula: Ebaluazioaren objektuari buruzko emaitzak.

3.5.-Ebaluatzailea eta ikasleen partaidetza

5. Dimentsioa: EBALUATZAILEA ETA IKASLEEN PARTAIDETZA								
Itema	Erabat desados		3	Erabat ados		Bat. bes.	Des. Tip.	
	1	2		4	5			
29- Ikaskuntzaren ebaluazioa egitearen ardura irakaslearena da	3,9	12,2	33,2	31,5	19,3	3,50	1,06	
30- Gustukoen dudak ebaluazio-sistema zein den galdetu didate	55,6	22,7	13,7	6,3	1,7	1,76	1,02	
31- Irakasleekin elkarlanean aritu naiz ebaluazio-sistema definitzerako orduan (irizpideak, teknikak, uneak, kalifikatzeko prozedurak, etab.)	52,7	25,9	16,1	4,4	1	1,75	0,94	
32- Ikasle gisa, nire kideek egindako lana eta ikaskuntza ebaluatzen ditut, eta, aldi berean, beraiek ni ebaluatzen naute	43,3	27,1	20,3	8,8	0,5	1,96	1,01	
33- Ikasle bakoitzak bere ikaskuntza autoebaluatzen du	26,9	20,8	27,4	17,1	7,8	2,58	1,26	

7. Taula: Ebaluatzailea eta ikasleen partaidetzari buruzko emaitzak.

3.6.-Ebaluazio uneak

6. Dimentsioa: EBALUAZIOAREN UNEAK								
Itema	Erabat desados		3	Erabat ados		Bat. bes.	Des. Tip.	
	1	2		4	5			
34- Ikasgai baten hasieran, irakasleak ikasleen hasierako ebaluazioa egiten du	41,7	27	22,3	7,1	2	2,01	1,05	
35- Ebaluazioa, ikaskuntza prozesuaren amaieran bakarrik egiten da	8,3	10,5	24,9	29,3	27,1	3,56	1,22	
36- Nire ikaskuntza modu jarraian ebaluatzen da ikasturtean zehar	18	37,8	31,7	8,8	3,7	2,42	1	

8. Taula: Ebaluazio uneei buruzko emaitzak.

3.7.-Ebaluazio teknikak

7. Dimentsioa: EBALUAZIO TEKNIKAK							
Itema	Erabat desados		3	Erabat ados		Bat. bes.	Des. Tip.
	1	2		4	5		
37- Ikaskuntza ebaluatzeke teknika nagusia idatzizko azterketa da	4,9	10,3	17,6	27,9	39,4	3,87	1,19
38- Ebaluazioa hainbat motatako lan eta eginkizunetan oinarritzen da	4,9	15,6	39,1	35,2	5,1	3,20	0,93
39- Ebaluazio-probetan egindako jarduerak, eskola-saioetan gauzatutakoen antzerakoak dira	5,9	19,5	45,6	26,1	3	3,01	0,90
40- Eskola-saioetan egiten ditugun jarduera edo lanak ni ebaluatzeke erabiltzen dira	5,6	17,4	38,4	31,1	7,6	3,18	0,99
41- Eskola-saioetatik kanpora egiten ditudan lanak ni ebaluatzeke erabiltzen dira	8,8	22,7	29,3	30,5	8,8	3,08	1,11
42- Badakit nire ikaskuntza nola ebaluatzen den egiten ari naizen ikasgaietan	4,9	15,9	35,2	31,1	13	3,31	1,04
43- Ni ebaluatzeke teknika edo prozedura desberdinen artean diren aukeratzeko posibilitatea daukat	34,1	32	23,4	7,3	3,2	2,13	1,07

9. Taula: Ebaluazio tekniketarako buruzko emaitzak.

3.8.-Ebaluazio eta kalifikazio irizpideak

8. Dimentsioa: EBALUAZIO ETA KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK							
Itema	Erabat desados		3	Erabat ados		Bat. bes.	Des. Tip.
	1	2		4	5		
44- Ikasturtearen hasieratik dakit ikasgai bakoitzean zein ebaluazio irizpide erabiliko diren	4,9	12,2	22,9	36,6	23,4	3,61	1,12
45- Ebaluazioa bat dator ikasgaiko edukiekin eta ikasturtean zehar egindako lanarekin	4,2	12,3	41,9	32,6	9,1	3,30	0,94
46- Ikasgai bakoitzean aurkezten zaizkigun ebaluazio-irizpideak ulertzen ditut	1,2	12	32,2	34,9	19,8	3,60	0,97
47- Ikasleok parte hartzen dugu ebaluazio-irizpideak definitzerakoan	47,7	29,8	16,4	5,4	0,7	1,82	0,94
48- Ikasgai batean nire azken kalifikazioa ezartzeko erabili diren irizpideak ezagutzen ditut	10	20,5	35	23,5	11	3,05	1,13
49- Ikasgaietako azken kalifikazioaren pisurik handiena, idatzizko azterketei dagokie	1,7	3,4	14	30,6	50,2	4,24	0,94

10. Taula: Ebaluazio eta kalifikazio irizpideetarako buruzko emaitzak

3.9.-Ebaluazioaren atzeraelikadura

9. Dimentsioa: EBALUAZIOAREN ATZERAELIKADURA							
Itema	Erabat desak.		3	Erabat ados		Bat. bes.	Des. Tip.
	1	2		4	5		
50- Ebaluazioko emaitzen berri emateko irakasleriak erabiltzen duen bitartekorik ohikoena, kalifikazioen zerrenda bat argitaratzea da	1,7	5,6	16,1	26,3	50,2	4,18	1
51- Nire ikasgaietan egiten den ebaluazioak, ikaskuntzan egon diren akats edo hutsuneei buruzko informazioa ematen dit	21	23	41,1	12,2	2,7	2,53	1,04
52- Ebaluazioaren emaitzak nahikoa azkar jakinarazten dizkirate	12,7	28,4	39,4	16,9	2,7	2,68	0,99
53- Irakasleriak, ebaluazioan jaso ditudan emaitzen inguruan hausnartzera bultzatzen nau	27,7	34,8	26,9	9,1	1,5	2,22	1
54- Ebaluazioaren ondoren, nire ikaskuntza hobetzeko aholkuak ematen dizkirate	38,7	33,6	21,6	5,4	0,7	1,96	0,94
55- Ebaluazioko emaitzak jakin ondoren, egon izan diren hutsuneak edo zailtasunak zuzentzen saiatzen naiz	6,9	11,5	33,1	34,8	13,7	3,37	1,07

11. Taula: Ebaluazioaren atzeraelikadurari buruzko emaitzak.

4.-ONDORIOAK

5.-Bibliografia

- Bordas, M. eta Cabrera, F. (2001). Estrategias de evaluación de los aprendizajes centradas en el proceso. *Revista Española de Pedagogía*, 218, 25-28.
- Brodie, P. eta Irving, K. (2007). Assessment in work-based learning: investigating a pedagogical approach to enhance student learning. *Assessment & Evaluation in Higher Education*, 32 (1), 11-19.
- Bryan, C. eta Clegg, K. (2006). *Innovative Assessment in Higher Education*. New York: Routledge.
- Carless, D.; Joughin, G. eta Wok, M.M. (2006). Learning-oriented assessment: principles and practice. *Assessment & Evaluation in Higher Education*. 31 (4), 395-398.
- Carless, D. et al. (2007). *How assessment supports learning: learning-oriented assessment in action*. Hong Kong: Hong Kong University Press.
- Gibbs, G. eta Simpson, C. (2004). Does your assessment support your students' learning? *Learning and Teaching in Higher Education*, 1, 3-31.
- Irons, A. (2008). *Enhancing learning through formative assessment and feedback*. London: Routledge.
- Knight, P. (Ed.) (1995). *Assessment for Learning in Higher Education*. London: Kogan Page.
- Padilla, M.T. eta Gil, J. (2008). La evaluación orientada al aprendizaje en la Educación Superior. Condiciones y estrategias para su aplicación en la enseñanza universitaria. *Revista Española de Pedagogía*, 241, 467-486.
- Pérez, A., Tabernero B., López, V.M., Ureña, N., Ruiz, E., Caplloch, M., González, N. eta Castejón, F.J. (2008). Evaluación formativa y compartida en la docencia universitaria y el Espacio Europeo de Educación Superior: cuestiones clave para su puesta en práctica. *Revista de Educación*, 347, 435-451.
- Wilson, M. eta Scalise, K. (2006). Assessment to improve learning in higher education: the BEAR Assessment System. *Higher Education*, 52 (4), 635-663.